

Josefa Iparragirre Alberdi

*Antzuola
Gipuzkoa (1920)*

Aurkibidea

Biografia



1920an jaio zen Irmoegigoena
auzoko Goikoetxe baserrian.
Ume-umetatik lan asko egin
behar izan zuen baserrian.
1936an, 16 urterekin, herrira
jaitsi zen lanera gerrako
kartutxo-kaxak egitera.

Zintak

ANT-057

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-06
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ANT-058

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-06
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-096

- **Proiektua:** Larru ontzea Antzuolan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Baserritik kalera lanera

- **Erref:** ANT-057/001
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>1920ko martxoaren 20an Goikoetxe baserrian jaiotakoa. Irimoegi auzoa nolakoa zen. Baserri inguruan dauden beste baserri batzuk. Baserrietatik jendea noiz hasi zen kalera jaisten. Josefa 1936an ekin zion herrian lanari.</p>

Transkripzioa

- ... ze urtetan...?
- "Veintidós de marzo del año veinte".
- Ta ze auzotan? Edo basarrixan...?
- Bai, hantxe jaiota, bai, Sarasketan.
- Ze izen daka?
- Sarasketa. Bueno, Goikoetxe edo Sarasketa-goiko, bixak esaten [...].

Honena Sarasketa da, eta gero, guria, ba, Goikoetxe... Goikoetxe lehen. Oin Sarasketa-goiko... Goikoetxe. Goikoetxe.

- Sarasketa [gero].
- Bai, bai, Goikoetxe.
- Zuendako beti Goikoetxe?
- Bai, bai. Bai, bai, Goikoetxe. Oin be nere semiak esaten [...] Goikoetxe, Sarasketa, hola ibiltzen dia hemen.
- Esaten dozue, baiña, zeuen basarritik gora oindiokan beste basarriren bat be badaola?
- Ez, hor ez. Gero atzera bueltan bai, baiña ya horrek Urretxu aldera ta beste... aizpurutxo aldera ta... ya horrek bueltan. Horrek bueltan. Guretik gora ez dao beste basarririk.
- Eta auzua? Ze auzotan dao?
- Irimoi, Irimoi auzua.
- Eta zelan gogoratzen dozu zuk Irimoi auzua umia ziñanian edo gaztetan? Asko aldatu da?
- Zela gogoratuko dot, ba? Aldatuko ez zan, ba? Bueno, bueno, bueno... Aldatu dana! Dana aldatu, dana aldatu.
- Basarrixak orduan danak egongo zian bete-beteta, ez?
- Bai. Soruan be illaran arta-jorran ta arbi-jorran ta danak illaria, jente pillia orduan. Eta gero, gerriakin ta lanakin ta historixiakin gero iñobe [bae] ixa geratu. Gu bezela fabrikara jende asko alde zan, ta gero etxetan, ba, poliki-poliki bajau jendia ta labrantzia gutxittu.
- Eta jentia... gerra ostian hasi zan fabriketara-eta jentia?
- Bai. Gerra-denporan be bai. Gerra-denporan be... Oseake, ni hasi nitzan lanian, veinte... treintaiseisian.
- Justo gerriakin batera?
- Bai, horixe, treintaiseisian.
- Eta auzua, esaten dozu, asko aldatu dala. Basarrixak lehen danak egongo zian beteta...
- Lehen basarrixak danak beteta.

2. Irimoegi auzoa nolakoa zen; inguruko baserriak

- **Erref:** ANT-057/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Ingurua, auzoa nolakoa zen. Baserri izenak. Urretxu eta Aizpurutxo aldera zeuden baserriak. Noizean behin Elosura joaten ziren erromeriara. Urretxu aldera joateko joerarik ez zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta auzua, esaten dozu, asko aldatu dala. Basarrixak lehen danak egongo zian beteta...
- Bai, lehen basarrixak danak beteta. Gure behekoa, honena, Sarasketa, bat. Gero, handik behera Iribar esaten jakona, han hiru bizitza, hiru familixa. Gero, Arluz-txiki, Arlutz-haundi eta Etxeberri, Otamendi, Irimo, Euzkitza, [Irausta], Iralatorre bi, bikixa... Irala beste bat, oin lar-artian

sartuta daona, ta lehen altua zana, e! Alkatia be hangotxia zan denpora baten. Ta gero [Aitza], [Aitza] beste bi, eta horretxek. Ibarre, gero oin zera ipinita daona, hau, agroturismo. Bai, bai. Irimoegiko etxiak, ba, horretxek.

- Askotxo zian, orduan, ez?

- Bai! Mordua, mordua, saillian-saillian.

- Eta lehen esan dozu atzeko partetik-edo beste basarriren bat zeuala gorao, ta urretxu aldera edo Aizpurutxo...

- Bai, bixetara. Batzuk Urretxu... osea, [Baztarriña], hiru bizitza baita. Gero, Ur-salto ta horrek be, horrek Aizpurutxo aldea. Eta gero, Urretxu aldea, berriz, egongo dia, ba, harek Urretxukuak ya: [Beain] ta hor beste batzuk.

-Eta Urretxu ta Aizpurutxo inguru horrekin hartu-emonaz bazekazuen?

- A, guk ez. Guk gutxi.

- Osea, honutz jotzen zenduen, ez? Antzuolara ta...

- Bai, bai, guk gutxi. Ez giñuan... Elusura Asenzio egunian bakarrik erromerixara.

- Baiña bestela...

- Ez, bestela ez geunkan horretan guk...

3. Goikoetxe baserria nolakoa zen gerra aurreko urteetan

- **Erref:** ANT-057/003
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Goikoetxe baserria nolakoa zen. Sukaldean txapa zuten, gerra aurretik. Garbitasuna. Ur-korronterik ez etxean. Kobrezko galdarak adornurako. Komuna. Etxean logelak non, zenbat.</p>

Transkripzioa

- Eta basarrixa, zeuen basarrixa, Goikoetxe, zelakua zan? Ze zan, basarri txikixa...?

- Ee, normala izengo zan ordurako. Harek zeuzkan: ganbaria; gero, ataixa esaten jakona ta ganau-zaltaixa ta hori beste zer bat, etxian zer bat, behian. Hiru zer. Eta gero zeuzkan: bat, bi, hiru habitaziño, pasillua eta sukaldia. Eta hori bai, orduan leku askotan ez zeuana: ekonomikia, txapia ederra. [Nueve ocho]. Haura guri amak badakizu zela garbittu ereitten zoskun astero-astero? Geiñera ixo bai, eta hankiakin, papel de lijakin; hola beittu ta ikusteko moduan arpegixa. Orduan leku askotan ez euen, baiña gurian bai.

- Eta ekonomikia, ze esaten dozu, gerra aurretik?

- Txapia. Bai, bai, bai.

- Jolin, ba, adelantua...

- Bai, bai.

- Bai. Hala ta guztiz be beheko sua eukiko zenduen, ez?

- Bai! Hori bai! Han taluek eta ederrak [...] zien.

- Eta beheko suori zer zeuan bazatr batian...?

- Bai, holaxe sukaldian. Ekonomikia ta zera hola, fregaderia ta gero hola. Urik ez geunkan etxien. Urik ez geunkan etxien orduan artien. Ez. Zer bat,

barrika bat, ipiñi, ta eurixa eitten zebanian, haura hartu. Eta haura, ba, ez dakit, ontzixak garbitzeko ta gauza askotarako. Eta gero, eratekua, ba, beherao jun biher billa, behera jun biher.

- Beheko sua, zuk entzunda dakazu amari edo aittari edo batenbati, erdixan egon zala sasoiaren baten?

- Bai, entzunda bai, baiña gurian sekula ez. Baztarrian. Entzunda bai, ta ikusitta sekula be ez. Iñun ez dot ikusi erdixan, baiña egon da, etxe batzutan egon da, egon zan.

- Eta sukaldian ze gauza egoten zian?

- Sukaldian? Ze esango dotsut, ba, nik ze egoten zien? Beste gauza bat esango dotsut. Galdarak, kobrezko galdarak. Zuk ez dakizu, ezta?

- Zer, erropia garbitzeko-edo?

- Ez, ez, ez, ez, adornurako. Beste... Hari lanik ez gontsen ereitten. Hola, apala bat zeuan atzian bueltan, eta han bat horixa eta beste bat butano kolorekua. Eta harek be ederki garbittu biher izeten zien, e! Binagriakin ta gatzakin. Ta gero euzkittan sekatu. Bai. Eta gero zeuan, ba, bueno, holako armaixo bat. Han trastiak sukaldekuak-edo. Gero a(ra)sia esaten jakona beste bat, han gauzak, ba, egoten zien han be. Eta beste... erropia eukitzeko txintxilisko zer bat eta, ba, holaxe.

- Hori sukaldian.

- Bai.

- Eta gero, beste habitaziñuak...?

- Beste habitaziñuak: bat zeuan, aittana ta amana, hiru maillatxo ixo eta haintxe sukaldetik; eta bestiak zeren handikaldera jun, ta harutz jun, pasilluan. Ta baztarrian komuna.

- Eta komuna bazekazuen...?

- Bai, bai. Urik barik, baiña komuna bai.

- Eta habitaziñuak, sasoiaren baten danak batera lo eitten zebela edo halako habitaziño haundiren bat [...]....

- Ba, igual bai. Bai. Amandria bizi zan arte bai. Ni justo-justo akordatzen naiz amandria hil zana. Ez dakit ze urtetan hilgo zan. Baiña ordura arte bai. Amandriana, gero mutillena, neska... aiztena, eta aittana ta amana, laurak.

4. Baserrian erreterero; etxejabearekin harremana nolakoa

- **Erref:** ANT-057/004
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Baserrian erreterero gisa. Etxejabearekin harremana nolakoa zen. Errenta garitan eta kapoiekin ordaintzen zuten. Ordainketak maiatzetan eta Gabonetan izaten ziren. Josefaren aita ponteko eta ama ponteko etxejabeak ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta basarrixak lehen... Bueno, ez dakit inguru honetan, baiña askotan etxe-jabiak edo egoten zian, ez? Erreterero basarrixa ta...

- A, gu ez. Gu erreteruak.

- Zuek erreteruak?

- Gu erreteruak giñan bai. Erueten gontsen kapoiak eta hola nausixei.

Errentian ordeztu garrixo ta, gero, kapoiak-eta gabonetan ta...

- Goguan dakazu hori guztiori?

- Bai.

- Kontauko dostazu? Zelan izaten zan hori? Relaziñua zelakua zan jabiakin?

- A! Relaziñua ondo, e! Bueno...! San Blas... Harek Zorroztarritakuak ziran, hor San [Blasti] ondoko basarri batekuak. Eta San Blasetan gonbidau juten giñan danok harutz. Bai, bai, bai.

- Ze zekazen, basarri gehixao zeuenaz aparte?

- Han... A! Ez dakit. Erena eukiko zeben. Oin haura be ya hustuta dao. Bueno, hustuta... etortzen dila uste dot oindio alabak. Urretxun-ta bizi dia Zorroztarritakuak. Baiña bueno. Han labrantzia edo, akaso patata puskan bat edo eukiko dabe [...] baiña ez, bestela ez.

- Bertan be bai.

- Nun?

- Jose Mari behintzet...?

- Zorroztarritan?

- Bueno, kalien, baiña...

- A! Danak, ba, hori!

- Zorroztarritakua.

- Zorroztarritakua. Ta neskak be bai familixa galanta! Onbre!

- Bai, baiña han bertan ez da iñor [...]

- Ez, ba! Horixe dihardut esaten!

- Eta, esaten dozu, rentia zelan pagatzen jakuen?

- Errentia? Esango dotsut. Neu be ahaztuta nao ixa. "Mayo", oin ez dakit ze hil dan, euskeraz ez dakit esaten.

- Ba, maiatza.

- Maiatza, maiatza. Maiatzian, oillandak eta ze gehixao eruten zan? Ez dakit zer. Gauza batzuk, ezta? Oillanda pare bat eta beste ez dakit ze zan eruten zana. Eta gero, gabonetan, garrixo, ez dakit zenbat... Zuk ez dakizu, baiña holako neurri batzuk izeten zian eta [hango] bat edo bi-edo garrixo. Eta gero, Santa Luzietan kapoi pare bat. Kapoiak. Badakizu ze dian? Oillasko...

- Bai. Baiña kontaidazu...

- Bai, kapoiak.

- Zuek kapatzen zenduzen?

- Ez, ez, ez, ez. Ke ba!

- Hori kapoiena zelan izaten zan lehen?

- Erositta eruten...

- Erositta...

- Erositta eruten giñuan guk, bai. Oillasko haundixak, harek kapauta egoten zien, ta gero haretzek. Horixe errentia. Ba! Ze, orduko... zenbat balore, ze balore ete zan orduko errentia?

- Baiña ordurako asko izango zan, ez?

- Bai, klaro! Ordurako izango zan, izango zan.

- Oillaskuak eta garrixo...

- Bai, bai, bai. Danak, bai. Baiña gu nausixakin oso ondo. Bueno...! Nire ama-puntako ta aitta-puntako haretzek zie.

- A, bai?

- Bai.

5. Antzinako ohiturak: errogatibak; bedeinkazioak...

- **Erref:** ANT-057/005
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:12:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Antiguako ermita, Irimoegi auzoan. Ermitako beata, urtean birritan joaten zen baserriz baserri garia... batzen. Antzuolako abadeak bedeinkazioa egiten zuen baserrietan; errogatibak. Trumoa zegoenean kandela bedeinkatua ipintzen zen. Ohitura horiek noiz hasi ziren galtzen.

Transkripzioa

- Eta garixa esaten dozu, garixa-ta emoten jakuela. Abadieri be zeoze emoten jakuen, ezta?
- Baitta! Abadiari be ekartzen jakon orduan. Ahaztuta nao ixa. Antiguako hori Irimoiei horrena da. Antioko ermittia jakingo dozu nun daon... Ba, hor bietia esaten jakon andra bat eoten zan hori gobernatzen zebana, ta haura urtian bi bider etortzen zan eskian etxetara. Baten eruten zeban, badakit eruten zebana, garixa --hori ointxe laster, ointxe, udan, garixa zertzen zanian-- eta, gero, udazkenian, babia be bai. Eta beste zeoze emoten bazontsan, ba, klaro, be bai. Hortik bizi zan hori beste zer barik, andra hori.
- Hori Antiguako biatiak?
- Bai, bai Antioko bietia.
- Eta bertako Antzuolako abadiak?
- Antzuolako abadiak, ba, ez dakit nik ze eukiko zeбен. Guk ez giñuan Antzuolako abadeik. Lehen pagatzen zian bautizuak eta entierruak eta horrek danak pagau eitten zian lehen, ta oin ez da pagatzen ezer. Baiña gero, ba, ez dakit, kuotak edo zela [...] bezela arreglatzen dien horrek, Caritas-ak eta... Badakizu, gauza asko zertzen da ta... Ez dakit abadiak oin zela... Sueldo txikixa daukela esaten dabe, baiña horrek estaduek-edo pagauko dittu. Ez dakit... Ez dakit...
- Eta... Ez, ba... Abadia esaten dozu ez dakazula goguan... Bedeinkaziñorik-edo eitten zan?
- Bai! Bai!
- Eta bedeinkaziñua eindakuan ez zeban ezer jasotzen?
- Baitta! Oillaskuak. Orduan be oillaskuak edo ze izeten zian? Oillaskuak.
- Ez...
- Bai.
- Arrautzak.
- Ez, arrautzak bakarrik ez. Oillaskon bat eta arrautzak edo hori. Etxetara etortzen zian, bai. Eitten zeban bedeinkaziñua.
- [...] zestokadia kargauta hor [...] zeбен bidian...
- Hori izeten zan, ba, ointxe, garixa burutzen zanian ta zera eitten zanian. Eitten zeбен bai, bai, bedeinkaziñua. Eta gero, rogatibak. Seko zeuanian kanpua, rogatibak eitten zittuen. Antiguara hortik bueltia eiñaz, [...] errezauez. Hiru egun-edo, hori, eurixa ein deixen. Baitta hori be. Bai.
- Bedeinkaziñuena esaten dozu oin. Ze izango zan maiatz inguruan edo?
- Bai, bai. Garixa... Ointxe. "Mayo", "junio"... ba! Ointxe, ointxe izengo zan.
- Ze juaten zian abadiak bertaraiñok basarriraiñok?
- Bai, bai, monagilluakin juten zan haura! Horrek esan dabena, zesto haundi batekin erregaluak batzeko ta hori.
- Orduan, soluan bertan eitten zeбен bedeinkaziñua?
- Bueno, bai, bai, etxe inguruan. Hori, badakizu, bedeinkaziñua etxe inguruan. Bai, soruan, terrenuan, bere terrenuan.
- Eta esaten dozu, gero, rogatibak. Hori ze zan? Sikutia zeuanian bakarrik?

- Bai, eurixa eskatzeko. Eta hori izeten zan, ba, elizan urten eta: "Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix. Ora pro nobis"... Antiguatik bueltia ein, ta atzera elizara. Hori eskatzen zan lehen, rogatibak esaten jakon. Oin ez dao, ezebe ez da eitten oin. Gero, trumoia zeuanian, kandelia piztu, kandela bedeinkatua.

- Gauza guzti horrek, gitxi gorabehera, rogatibak eta bedeinkaziñuak, noiz hasi zian pixkat ohittura horrek galtzen?

- Ba! Hori noiz hasi zan... A! Galtzen? Ez dakit. Nik noiz ezin dot esan, baiña, ba! Aspaldian [...] behintzat. Aspaldian ez da ezer eitten. Honezkero berrogei urte baiño gehixao igual. Bai, bai, bai. Bai.

- Eta esaten dozu bautizuak eta entierruak eta pagau eitten ziala?

- Bai. Bueno, bautizuak pagau-pagau ez dakit; entierruak bai. Bautizua gero... Han be eruten jakon, ba, erregaluak abadiak. Eta gero erak emoten zebe txokolatia.

6. Bataioen inguruko azalpenak; ohitura zaharrak: elizara sartzea

- **Erref:** ANT-057/006
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Bataioak, ahal izanda behintzat, egunean bertan egiten ziren. Abadeak umea eramaten zuten senideei txokolatea ematen zien. Ezagutu ez zuten ohitura zaharra: ama umea izan eta gogortu arte, ezin zitekeen etxetik atera. Irten beharra bazuen, buruan teila bat ipintzea derrigorrezkoa zuen. Umea bataiatzera nortzuk eramaten zuten. Elizara sartzea.</p>

Transkripzioa

- Eta esaten dozu bautizuak eta entierruak eta pagau eitten ziala?

- Bai. Bueno, bautizuak pagau-pagau ez dakit, entierruak bai. Bautizua gero, han be eruten jakon, ba, erregaluak abadiak, eta gero erak emoten zebe txokolatia. Bai, bautizatza... Orduan egunian bautizatzen zan jeneralmente, [zauen] bezela. Jaiotzen bazan goizian, ba, ya egun bertan jeneral.

- A! Ta egunian bertan?

- Bai, bai, bai. Ahal bazan bai, "cuanto antes". Orduan bai. Eta gero eruten jakon, ba, abadiak orduan be erregalua. Ez dakit [...] izengo zien orduan be, ba, oillua ta arrautzak edo, honek esan dabena. Ta gero han abadian damaikesiak edo kriadiak han juten zianei, umiak juten zianei, ba --bi lagun edo izengo zien--, txokolatia-edo emoten zotsen.

- Orduan, ama ez zan juango...

- Ez, ez, ez, ke ba! Beste kostunbre bat esaten zebe... guk ez giñuan ezautu., e! Guk ez giñuan ezautu hori. Baiña umia jaio ta gero sartzen zan elizan, e! [...] bada , ba, "Ama birjinaren elizan sartzea", ama saniatzen zanian puskat elizan sartzen zan. Eta ordura arte amak ezin zeiken etxetik urten. Ta urten bihar bazeban, teillia buruan ipinita. Esaten zebe, e! Hori ni akordau ez naiz itten, baiña esaten zebe.

- Ze zeuan, debekatuta? Osea, pekatua zan etxetik urtetzia?

- Bai, bai, onbre! Onbre! Horixe!

- Eta, orduan, bautizora zeintzuk eruaten zebeu umia?

- Bautizora? Ba, padrinua ta madrinia, eta gero, ba, umiakin [zoiarrena], ba, gazte bat, tian bat edo aiztan bat, aman aiztan bat, edo hortako. Ta gero, neska txiki bat, pitxartxo baten ur-bedeinkatua eta toallia, umiai ura botatakuan sekatzeko.

- Eta bautizuan gero egoten zan halako ohiturarik, ba, bazkariren bat eitteko edo...?

- Bai, ba, bueno... Segun. Gehixegi ez, baiña bai, zeozer bai. Zeozer bai. Zeatik guk [esaten giñuan]... Orduan guri ez zoskuen emoten, gure denporan be artian, ezebez, saldia ta ezebez, ez dala komeni ta. Eta gero zera, txuletia igual. Eske gaixotasuna ez da hori! Parto bat ez da gaixotasuna! Gaizki pasatzen dozu, baiña gaixotasuna ez da, ta gosia ta dana egoten da. Ta orduan [...] gaixotzen. Baiña bai, bai, itten zan zerbait, merienda edo basarrixan baldin bazan ta...

- Eta gero, elixara sartze hori zelan izaten zan?

- Elizara sartzia, ba...

- Zenbat egunera edo...?

- Bueno, ba ama gertatzen zanian. Ama gertatzen zanian. Oin bezain azkar ez pentsau gertatzen zanik, e! Oin bigarren egunerako kalia ikusten dozu, baiña orduan ez, e! Orduan...

- Orduan hillebete.

- Hamar egun edo hoge egun igual; hillebeteik ez normalian, baiña hola.

- Eta orduan ze jua bihar izaten zan, elixara umiakin...?

- Bai, bai, umiakin. Umia ta ama, ta gero lagunori ta... Orduan ez dakit ze zeremonixo eitten zotsen. Zeozeren bedekaziñon bat edo eingo zotsen abadiak eta, ba, bueno.

7. Hileta elizkizunak; ohitura zaharrak: gorputzaren aurretik, ogiduna

- **Erref:** ANT-057/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Hileta-elizkizunak. Klase desberdinetako hiletak. Ordaindu egin behar izaten ziren. Gorputzaren aurretik, abadearen ondoan, ogiduna joaten zen (buruan otzara batean ogiak eramaten zituen emakumea).</p>

Transkripzioa

- Eta entieruak esaten dozu pagau eitten ziala ta...?

- Entieruak? Bai, bai, pagau eitten zian.

- Ze zian, klase diferentietako entieruak be bazian?

- Bai, lehen primerakuak. Gero bateratu zan, baiña bai, bi klase. Ni be gehixegi ez naiz akordutzen horrekin, baiña pagau itten ziala bai. Entieruak pagau itten zian. Eta juten zan... Oduan manto haundixakin. Manto... Danak gorputz dana hartzen daben mantuekin, senidiak eta. Eta gero, [egoten] zan bat edo bi igual --bat... batzutan bi, beste batzutan bat-- "ogiduna" esaten jakon. Buruan zesto baten ogixa eta gorputzan aurretik haura, abadian onduan. Hori ez dakit ze kostunbre izengo zan! Ta gero hori

hari be ez dakit ze eitten jakon be.

- Eta hori zuk ezautu zenduan?
- Bai.
- Eta zein izaten zan? Beti persona...?
- Bueno... ez, ez. Zuk elegitzen dozuna; familixan, ba, "Bueno, ba, ni jungo naiz", ta hori, ez zebe [elejidu be eitten].
- Eta ogixa eruaten zeban?
- Bai, bai, ogixa, ogixa. Ez dakit nun indakua edo ze izengo zan. Etxien eindakua izengo zan. Orduen, klaro, orduen kaletik ogirik-eta ez zan eruaten ta. Basarrikua zanian. Kalekuak be, ba...
- Eta ogi espezialen bat edo...?
- Ez dakit. Ez dot uste ogi espeziala, ogixa.
- Olatak, ez?

8. Domu Santu Eguneko ohiturak: olatak eta "argi-ogixa" hilarrira

- **Erref:** ANT-057/008
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

<p>Domu Santu Egunean olatak eramaten ziren hilarrian. Hiru puntako opiltxoak izaten zen olata. Hilarrian olata eta "argi-ogixa" lagatzen ziren; abadearentzat izaten ziren.</p>

Transkripzioa

- Olatak izeten zien Domu Santutan elizan. Oseake, hildakuen hilla izeten zan, ezta? Domu Santu hil hori hildakuena. Eta orduan eitten zian, ba, hildakuendako mezak eta gauzak. Eta "sepultura" esaten jakon kuadrotxo bat familixa bakoitzak zeukan elizan. Familixa bakoitzak kuadrotxo bat. Eta kuadrotxo horretan ipintzen zan orduan [...] olatia esaten jakona, hiru puntako --oin be eingo dittue, [...] ez dakit--, hiru puntako opiltxo bat, eta beste txikitxuak bat iguala. Eta harek eta argizarixa --argizarixa, hola batutako hori, ta--ipintzen zian sepulturan. Eta gero harek abadiandako izeten zien.
- Olatak?
- Bai.
- Ogi harek abadiandako.
- Eta esaten dozu bi olata lagatzen ziala orduan?
- Bai.
- Olata huandixaua ta txikixaua.
- Bai, bai.
- Bai, olatia ta argi-ogixa.
- Bai, bai.
- Olatia ta "argi-ogixa"?
- "Argi-ogixa" esaten jakona, "argi-ogixa"...

9. Hileta-elizkizunak: ondra-jana; kanpaiak

- **Erref:** ANT-057/009
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Hileta-elizkizunak. Klase desberdinetako hiletak. Desberdintasuna: meza aldare nagusian bakarrik edo beste aldare txikiagoetan baita ere. Hil-kanpaia. Hildakoa zein auzotakoa zen jakiten zuten kanpaien arabera. Ondra-jana: intxaurrak, gazta, ardo-goxoa...</p>

10. Domu Santu Eguneko ohiturak: manta beltza

- **Erref:** ANT-057/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Domu Santu Eguna. Hilarria nola zaintzen zen. Familian hildako bat bazegoen, urtebetean manta beltza ipini behar izaten zen sendiaren hilarrian.</p>

11. Luto kontuak antzina

- **Erref:** ANT-057/011
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Luto kontuak nolakoak izaten ziren. Eliza kontuetan asko aldatu dira gauzak, ohiturak...</p>

12. Kongregazioaren inguruko azalpenak: debekuak; zigorrak

- **Erref:** ANT-057/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Kongregazioa. Nesken kasuan, dantza eginez gero kongregaziotik kanpora geratu edo kolore desberdineko zinta eraman behar izatea egokitu zitekeen. Hijas de María kongregazioa; hilean behin elkartzen ziren. Igande arratsaldeetan "bezperak" egoten ziren. Jaunartzea egin eta gerora sartzen ziren kongregazioan.</p>

13. Jaunartzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ANT-057/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:24:10. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Bi jaunartze egiten ziren bere gaztaroan: txikia eta handia. Soinekoak zelakoak izaten ziren.</p>

14. Meza kontuak: mantila; liburua...

- **Erref:** ANT-057/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Mezara mantilarekin joan beharra zegoen. Mantila, liburua eta arrosarioa. Mezak latinez izaten ziren; liburua ere latinez. Abadeek meza nola ematen zituzten. Igandetako bezperak.</p>

15. Dotrinaren inguruko aipamenak: "kalabaza"; "Pazkoakoa"...

- **Erref:** ANT-057/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Dotrina kontuak. Euskarazko dotrina; buruz ikasi beharra. Jaunartzea egiteko derrigorrez jakin behar, bestela "kalabaza". "Pazkoakoa". Garizuman derrigorrezkoa zen jauna hartzera joatea eta horretarako beharrezkoa zen sakristian txartel bat jasotzea. Mutilen kongregazioa.</p>

16. Arrosarioa egunero; fede handia

- **Erref:** ANT-057/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Domu Santua. Etxean egunero errezatzen zuten arrosarioa, neguan. Mahaiaren bedeinkapena. Ogia nola moztu behar zen. Gurasoak fededunak. Fedearen pertzeptzioa.</p>

17. Eskola kontuak: zenbat urterekin hasi; noiz amaitu; zer ikasi...

- **Erref:** ANT-057/017
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:34:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola gutxi. Bederatzi urterekin hasi eta 12 urterekin amaitu zuen. Umetan, baserrian lan asko zegoenean eskolara joan gabe geratzen ziren. Eskola amaitu eta lantegira. Antzuolan eskola non zegoen. Irakasleak. Zer ikasten zuten. Eskolan ere dotrina ematen zuten. Eskulanak egiten ikasten zuten.</p>

18. Maristak Antzuolan: Korpuzti eguneko prozesioa

- **Erref:** ANT-057/018
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Mutilak herriko eskolara edo maristetara joaten ziren. Maristetan kanpotik etorritako mutil asko egoten ziren. Berriotxoako Balentin eguna, jai izaten zuten; familia etortzen zitzaaien bisitan. Herriko etxeetan geratzen ziren egun batzuk pasatzen. Maristek Gorpuzti eguneko prozesioan parte hartzen zuten;

prozesio izugarria. Komentua erre eta harrezkero Antzuolatik Logroñora joan ziren.

19. Maristak Antzuolan: komentua; eliza; herritarrekin harremana

- **Erref:** ANT-057/019
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Maristen komentua nolakoa zen. Kalefakzioa zuen eliza bakarra. Mutikoen arropak herriko emakume batzuk garbitzen zituzten. Eskolako mutilak gaztaina batzen... ibiltzen ziren.

20. Maristak Antzuolan: eskola ona; eliza; komentua; ikasgelak. Gerra garaian komentuan erre

- **Erref:** ANT-057/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:40:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Maristetan ikasten zuten mutilak, eskola ona izaten zuten. Eliza, komentua. Ingurua nolakoa zen. San Jose santua. Elizaren goialdean ikasgelak eta beraien bizilekua. Gerra garaian komentua erre zen; gerora Logroñora joan zen Ordena osoa.</p>

21. Basoak nolakoak; gaztainadiak. Gaztaina klaseak; nola batzen zituzten

- **Erref:** ANT-057/021
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:40:35. **Bukatu:** 00:44:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Baserri ingurua nolakoa zen. Basoak: gaztainadiak, hariztiak, e.a. Pinua sartzen noiz hasi zen. Gaztainak nola batzen zituzten; "motxardia"rekin batzen zituzten gaztainak. Gaztaina erreak; egosiak. Gaztaina klaseak; izenak. Bakoitzaren ezaugarriak. Gaztainak eskolarekin gordetzen zituzten ganbaran.

22. Jatekoa baserrian; Gabonetako eta Aratosteetako jana

- **Erref:** ANT-057/022
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Lan-banaketa baserrian. Emakumeak etxeko lanak egiten zituzten gehiago; ortua ere zaintzen zuten. Ortuan ereiten ziren barazkiak. Jatekoen inguruko azalpenak. Txerria eta ardia hiltzen zirenean, urdaia, zezinia... egiten ziren. Jaiegunetan, beti zerbait berezia prestatzen zuen amak. Gabonetako jana: intxaur-saltsa. Nola prestatzen zen. Aratusteetan, torradak jaten zituzten. Horretarako Bergaratik "panpotak" ekartzen ziren (ogi bereziak).

23. Baserrian ogia nola egiten zen; lexikoa

- **Erref:** ANT-057/023
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:50:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Ogia baserrian astean behin egiten zuen amak. Oremahaia. Ogia nola egiten zen. Labea nola eta zerekin garbitzen zuten. Hazgarria. Lexikoa</p>

24. Gariaren inguruko azalpenak: errota; irin klaseak; lexikoa

- **Erref:** ANT-057/024
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:53:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Gariaren inguruko azalpenak. Ganbaran gari-kutxak. Errotara zakuak eramaten zituzten astoan. Antiguako errota. Irina galbahetik pasatzen zen etxean: finagoa; latzagoa ("basiloria"). "Saixa". Lexikoa</p>

25. Behiak kortan; jateko gutxi

- **Erref:** ANT-057/025

- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:53:15. **Bukatu:** 00:55:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Galbahe klase desberdinak. Garia, babak pasatzeko galbahe desberdinak. Arto-irina. "Ganbela". Behiak kortan; ez ziren kanpoan edukitzen. Gaurko abereekin zerikusirik ez; orduan goseak egoten ziren.</p>

26. Garotara gurdiaekin: zertarako erabiltzen zen; garoaren inguruko lanak

- **Erref:** ANT-057/026
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:55:25. **Bukatu:** 00:58:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Garotara gurdiaekin. Garoa zertarako erabiltzen zen: ganaduari azpiak egiteko; txerri-larrua erretzeko... Garotara nora joaten ziren. Toponimia. "Zenbat tonto lan!..". Garoa ebaki eta ihartu arte bertan lagatzen zen. Garoa etxera ekarri eta metatu egiten zen.</p>

27. Baserriko lanak udazkenean

- **Erref:** ANT-057/027
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:35. **Bukatu:** 00:59:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Udazkenean lan ugari baserrian. Garoa; baba eta arto batzea; gaztainak, sagarrak... Eskolarako denbora gutxi. Beste modu batera pentsatzen zen. Jolasak.

28. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-057/028
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. "Potxoka"; tortolosean. Tortolosean nola egiten zuten. Sokasaltoan; bule-buleka; kantoeka...</p>

29. Umetako jolasak: txirikila; tortolosak

- **Erref:** ANT-058/001
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:05

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlujioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: Txirikilarekin jolasean; galderonka. Nola jolasten zuten. Garizumako jolasak izaten ziren; baita tortolosak ere.</p>

30. Baserri ingurua nolakoa zen. Karobiak; txondorrak...

- **Erref:** ANT-058/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baserri inguruan ermita eta errota zeuden. Karobi bat ere izan zuten. Beraiek ez zuten sekula karea egiten ikusi. Txondorrak. Aitak atari-aurrean egiten zuen. Ikatza saldu egiten zuen.

31. Kanean zer saltzen zuten: ikatza, gaztainak, esnea...

- **Erref:** ANT-058/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Kanean saltzen zirenak: ikatza; gaztainak; esnea... Beti zegoen zer erosi herrian ere. Bezeroak izaten zituzten.

32. Aita feriara eta ama tratura Zumarragara

- **Erref:** ANT-058/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:10

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Aitak ferietara joateko ohitura zuen; Bergarara eta Legutiora batez ere. Villarrealera trenez joaten zen. Trenak bi geltoki zituen Antzuolan: Amilletan eta Uzarragan. Ama tratura Zumarragara ere joaten zen. Arraindunak kalean ibiltzen ziren saltzen. San Isidro Eguna eta Bergarako Erramu Zapatua egun garrantzitsuak.</p>

33. Baserrian ur-korrontea noiz ipini zuten

- **Erref:** ANT-058/006
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian ez zuten ur-korronterik. Teilatuko ura jasotzen zuten abereendako. Gogoan du ura etxeratu zutenean hodiekin zer gertatu zen.

34. Arropa garbitzea; lixiba

- **Erref:** ANT-058/007
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:08:35. **Bukatu:** 00:11:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak nola garbitzen zituzten. Kolorezko arropak albergan xaboiarekin jartzen ziren. Arropa zuria egosi egiten zen; lixibontzia. Inguruan ez zuten errekarik; ura inguruko baso batetik etortzen zen.

35. Ehunezko arropa; Antzuolako ehulea

- **Erref:** ANT-058/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:14:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ehunezko arropak: izarak; "kamisia". Antzuolan garai batean ehulea egon zen, Gaspar. Amak ardi-ilea garbitu, kardatu, eta goruetan haria egiten zuen. Liho (linu) landarea ez zuen ezagutu; ama lihoarekin haria egiten ere ez. Ehunezko arropa nolakoa izaten zen.

36. Lehenagoko koltxoia, arta-malutazkoak

- **Erref:** ANT-058/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:15:40

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Koltxoia, arta-malutazkoak izaten ziren. Gerora, ardi-ilearekin egindakoak. Urtean behin gutxi gorabehera koltxoiaren zorroa garbitu, artilea jo eta ondoren arrotu eta gero berriz betetzen ziren.

37. Artilearekin amak haria egiten zuen

- **Erref:** ANT-058/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:20

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Artileak garai batean garrantzi handia izan zuen. Amak haria nola egiten zuen. Ardatza, txabila, makina...

38. Umetako arropa nolakoa zen; oinetakoak

- **Erref:** ANT-058/011
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:21:45

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Umetako eta gaztetako arropa, oinetakoak. Abarkak; bortzeriak... Paulino; Ceferino, abarkagileak.

39. Umetako arropa nolakoa zen; oinetakoak

- **Erref:** ANT-058/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:23:35

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Maiatzean garri-jorra egin behar izaten zen. Lan gogorra; astuna. Etxean epel. Mutilak, fraka motzekin ibiltzen ziren. Tunikak.

40. Argindarra; Antiguaklo errota

- **Erref:** ANT-058/013
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:24:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Argindarra nondik ekartzen zuten baserrira. Antiguako errota.

41. Gaztetan guarnizionerian lanean

- **Erref:** ANT-058/014
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:24:15. **Bukatu:** 00:28:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

12 urterekin eskola amaitu zuen. 16 urterekin gerrarako kartutxerak... egitera jaitsi zen herrira (1936). Narru ontze lantegiak: Telleria, Olan, Arbulu, Bareño. 7 urtetan egon zen Tellerianean lanean. Gerra garaian neska ugari hasi ziren Tellerianean guarnizionerian lanean.

42. Soldaduentzat kartutxerak nola egiten zituzten

- **Erref:** ANT-058/015
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:34:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Kartutxerak egiteko prozesua nolakoa zen. Soldata zenbatekoa izaten zen. Zilarrezko txanponekin ordaintzen zieten. Asegurua. Nesken arteko harremana oso ona.

43. Antzuolako pertsonai ezagunak: Olan

- **Erref:** ANT-058/018
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:36:40. **Bukatu:** 00:37:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Olaran nolakoa zen. Ardi-esnea sarri eramaten zioten.

44. Narru-ontze lantegien beherakada

- **Erref:** ANT-058/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:37:35. **Bukatu:** 00:39:35

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Larrutegian, 7 urtean jardun zuen lanean. Narru-ontze lantegien beherakada noiz etorri zen. Olaranez lantegia Beasainera eraman zuen.

45. Gerra Antzuolatik pasa zenekoa

- **Erref:** ANT-058/020
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:42:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Telleriaren seme bat erreketeeekin sartu zen Antzuolan gerra garaian. Frontea Antzuolara heldu zeneko kontuak. Koltxoak leihuetan. Tropen egoera; arrantxoa... Soldaduak baserrian. Elgetan frontea; Antzuola tropaz beteta.</p>

46. Soldaduak Antzuolan; herritar asko ihesi

- **Erref:** ANT-058/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:42:40. **Bukatu:** 00:44:40

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Soldaduak komentuan, baserri batzuetan eta eskolan ere egon ziren. Gasteiz aldetik hegazkinak etortzen ziren Elgeta aldera. Kaleko jende asko ihesi irten zen herritik.

47. Antzuolan gerran hildakoak

- **Erref:** ANT-058/022
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:45:35

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Antzuolan hildakoak egon ziren. Horren inguruko zenbait azalpen.

48. Gerran kartzelan egondakoak

- **Erref:** ANT-058/023
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:46:10

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Kartzelan ere jende asko egon zen.

49. Mutil gazte asko gerrara; batailioiak

- **Erref:** ANT-058/024
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:46:10. **Bukatu:** 00:47:30

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Antzuolan ez zen batailoirik sortu. Gerora, bertatik joandako mutilak batailoi ugaritan antolatu zituzten.

50. Gerra ostea baserrietan; estraperloa

- **Erref:** ANT-058/025
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:50:45

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostea gogorra izan zen. Kaleko jendeak gosea ere pasatu zuten. Errazionamendua. Baserriek jeneroaren zati bat herrira entregatu beharra izaten zuten. Dena ez zuten deklaritzen; zati bat gorde egiten zuten; ezkutatu. Estraperloa. Bertan ez zegoen jenerorik eta kanpotik ekarri behar izaten zen.

51. Mutil gazte gehienak soldadu joan ziren

- **Erref:** ANT-058/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:50:45. **Bukatu:** 00:52:25

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Gerra ondorengo urteak gogorrak izan ziren. Mutil gazte gehienak soldadu joan ziren. Lantegien beherakada.

52. Elgetako frontea; bonbardaketak

- **Erref:** ANT-058/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:53:45

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Elgetako frontea. Bonbardaketa. Notiziak jasotzen zituzten; Durangoko bonbardaketa.

53. Aste Santuko prozesioak

- **Erref:** ANT-058/028
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:56:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Maristek prozesioa egiten zuten Gorpuzti egunean. Aste Santuko prozesioak. Ermitetako jaiak. Meza; erromeria. Aste Santuko prozesioetan jendea oso dotore. Arropak estreinatzeke garaia. Mantilak.

54. Ile-apaindegiak; orrazkerak

- **Erref:** ANT-058/029
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:56:20. **Bukatu:** 00:58:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Ile-apaindegiak. Orrazkerak. Zinera Bergarara joaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com